

Institutua

GIZARTE ANIMAZIOA

● / 2012-XII-20 osteguna /

ERGEBIKO ERRUMANIAR KOMUNITATEA

Bost urteko plana, integraziorako

EGILEAK
Ainhoa Arias,
Sara González,
Imanol Laburu.

// II-III



BETIDANIK JOLASEAN

Hernaniko helduek beren haurtzaroa ilusioz gogoratzen dute

EGILEAK
Ane Infante, Garbete Intxausti,
Irene Peñasaite, Miriam
Arandana, Jonne Arandana,
Maider Acosta, Oihana Gutiérrez
eta Sheila Carrizjal

// III



skuko azokak ez eta indar ago!

// IV

Etiopiako haur alfabetatu gabe batzuk Motorola xoom-a jakeatu dute

EGILEAK
Judith Perez,
Ainhoa Larrea, Elham
Arzobari, Ideia
Okazaba, Arantxa
Okazaba

// IV

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

HERNANI BHI : ANIMAZIO SOZIOKULTURALA ETA TURISTIKOA

BADIRA urte batzuk Errumaniako hainbat ijito familia gure herrietara etorri zirela bizimodu hobe baten bila. Astigarragatik, Donostiako Loiola eta Martutene auzoetatik, eta Hernanitik kanporatu dituzten arren, gaur egun, Astigarragan bizi dira, autobidearen azpian. Bertan, 122 pertsona bizi dira, beraiek eraikitako 51 txaboletan. Bizi baldintza eskasak dituzte: ur eta argindar falta, hotza eta hezetasun handia (Urumea ibaiaren ondoan bizitzearen ondorio) baina nahiago dute baldintza hauetan bizi, errumaniara itzultzea baino.

ERGOBIKO ERRUMANIAR KOMUNITATEA

Bost urteko plana, integratuz

LEHENAGO Astigarragatik kanporatuak izan ziren arren, oraingo udalak bost urteko proiektua prestatu du Eusko Jaurlaritzarekin, Diputazioarekin eta Romi bidean elkartearekin batera, Ergobiko zubi azpian bizi den komunitateari herrian integratzen laguntzeko eta haien bizi-kalitatea hobetzen saiatzeko. Herritar batzuek ez dituzte begi onez ikusten eta hori aldatzeko plana aurkeztu du Astigarragako Udalak.

Aipatutako proiektuak bost urte iraungo ditu eta denbora tarte hori igaro ondoren pertsona talde hori gizarteratuta eta integratuta egotea da helburua. Helburu hori betetzeko guztien laguntza «beharrezkoa» dela uste du Astigarragako Udalak eta berretsi du, ahalegina alde guztiek egin beharko dutela proiektua aurrera atera dadin eta errumaniarrek hobeto bizitzeko aukera izan dezaten. Geure ohituretara eta bizi erritmora ohitzeko errumaniarrek jokabidea aldatu beharko dutela nabarmendu du Udalak. Hala ere, bertako herritarrek errumaniarrekiko duten iritzi edo pentsamoldea aldatzea beharrezkoa dela adierazi du, egoera honi irtenbidea aurkitzeko denon konpromisoa ezinbestekoa delako.

Higiene eta heziketa baldintzak
Arau eta baldintza batzuk bete beharko dituzte, Astigarragan integratu nahi badute: ezingo dute txabola gehiago eraiki. Higiene baldintza batzuk jarri zaizkie: txabolak garbi mantentzea, eta hondakinak kudeatzen ikastea. Gainera, txaboletan bizi diren haurrek eskolara joan beharko dute derrigorrez; alde batetik, maiztasun batekin joan beharko dute klasera eta bestetik, higie baldintza minimo batzuk bete beharko dituzte. Aipatutako arau hauek betetzen ez badituzte txabolak bota egingo dizkiete eta Astigarragatik kanporatu egingo dituzte.

Hau guztia bete ahal izateko, udalak adierazi du eskura dituen



'Bizilagunak' programaren barruan, elkarrekin bazkaldu zuten bertako eta kanpoko familiek.

baliabide guztiak jarriko dituela; edukiontzia jarriko dituzte txaboletan (zaborra bertan bota dezaten), eta txaboletan bizi diren haurrak matrikulatzeko ere laguntzak emango dituzte, bai haur eskolan, bai eskolan.

Bazkaria, lagunartean

Hainbat ekintza antolatu dituzte errumaniarren integratuz, ala nola, bazkariak. Hau da, proiektuaren alde aurkezten diren zenbait familia errumaniarren txaboletara joan dira bazkaltzera, eta errumaniarrek ere Astigarragako etxetara gerturatu dira bazkaltzera.

Horretarako, jarraipen batzorde bat eratu du udalak; plana indarrean jarri eta hurrengo hiru hilabeteen jarraipena egingo du. Ergobiko zubipeko komunitatea Astigarragako erroldan sartuko da, denbora tarte horretan arauak bete badituzte.

«Integratuz zaila da, baina beharrezkoa»

Proiektua asteazkenean aurkeztu zuen udalak herritarren aurrean.

Astigarragako Udalak jarritako baldintzak: txabola gehiago ezingo dute eraiki eta higie baldintzak bete behar dituzte: etxeak garbi, hondakinak bereiztu... Haurrek eskolara joan behar dute derrigorrez.

Arauak betetzen badituzte, Astigarragako erroldan sartuko da Ergobiko zubipeko komunitatea

Planaren ezaugarriak azaldu ostean, ondorio batzuk atera ditu alkateak. Aitortu du «zaila» izango dela proiektua aurrera ateratzea, komunitate baten ohiturak eta bizi erritmoa ez direlako egun batetik bestera aldatzen. Hori dela eta, elkarlanaren eta ahalegin kolektiboaren garrantzia nabarmendu du Gartzia: «Plan hau bultzatu dugunok uste dugu gizartearen eginbeharra dela horrelako aukerak ematea; horregatik, udalak, herritarrek eta errumania-

rrek ahalegina egin behar dute plana aurrera ateratzeko».

«Hutsune asko ditu planak»

Herritarren artean aldeko eta aurkako jarrerak sortu ditu Astigarragako Udalak aurkeztu duen planak. Aurka daudenek argudiatzen dute oso laburra dela integratuz epea, hiru hilabetean ez dituztela euren ohiturak aldatuko. Koldo Mendikute Ergobian bizi da, eta «hutsune asko» ikusten dizkio planari. Haren ustez, 5.000 biztanle dituen herri batean 122 pertsona integratzea «gehiegia» da. Horren aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak dituen etxebizitza sozialak erabiltzea proposatu du: «Aldundiak hainbat herritan dituen etxebizitzak erabiliz gero, 122 pertsona horiek sakabanatu daitezke, Astigarragari zama guztia eror ez dakion».

«Beldurra, askotan, ezjakintasunak sortzen du»

Romi Bidean elkarteko kideak dira, berriz, Aitor Martinez eta Ileana Balaci. Asteazkenean hiruzpalau alditan bisitatzen dituzte

51

zenbakia



Ergobiko txabolak, errumaniarren egoera zertan den ikusteko. Herritarrek dituzten beldurrak «ohikoak» direla uste dute; baina ijito etniako errumaniar horiek ere bizibaldintza hobek eskuratzeko eskubidea dutela gogorarazi dute. Beldurra, askotan, ezjakintasunak sortzen duela uste du Balacik: «Txabolak eta bertan bizi direnak ezagutzen ez dituztenek aurreiritzi batzuk dituzte haiekiko; bisitan etortzen badira, ordea, ikusiko dute errumaniarrak ez direla hain ezberdin eta arraroak».

'BIZILAGUNAK'

Errumaniarrekin bazkaltzen

Proiektua nolako den azaldu dugu baina proiektuan parte hartu zuen Astigarragako gazte batekin solasean aritzeko zortea izan dugu. Julen Del Orden izena du gazte honek eta hainbat galdera erantzun dizkigu:

Zer nolako esperientzia izan da zuretzako?

Oso esperientzia polita izan zen. Hasiera batean, ez genien zer nolako harrera izango genuen Errumaniarren kanpamenduan, batez ere ez genuelako elkar ezagutzen eta ez genekielako nola erantzungo zuten gure presentziarekin. Hala ere, SOS Arrazakeriatik koordinatzaile bat gurekin etorri zen (errumaniarra bera) eta horrek asko lagundu zigun familiarekin hasierako hizketaldiak egiten, eta elkar ulertzen.

Alde haundia nabaritu al duzu gastronomikoki?

Ez genuen alde haundia nabaritu janari aldetik, baina esan beharra daukat inoiz dastatu ez dudana eta oso gustora jan genuen plater bat eskaini zigutela. Plater hori hiru osagairekin egin zuten: Txikitutako zerri haragia eta arroza nahastu zuten. Behin hori prestatu eta gero, aza-hosto baten barnean sartu zuten, eta berriz egosi egin zuten. Oso ona zegoen. Bestalde, errusiar entsalada antzeko plater bat jan genuen eta postre bezala, nik eramandako udare tarta eta beraiek eskainitako fruituak.

Zerk harritu zaitu gehien?

Beraien bizimoduak eta bizi diren lekura egokitzeko gaitasunak. Ibai ondoan, lokatzez beteta dagoen leku batean eta



Errumaniako familiak oso goxoa prestatu omen zuen bazkaria: txerriak eta arrozarekin egindako nahasketa, aza-hostoan bildua.

Astigarraga eta Hernani lotzen dituen errepidearen azpian, horrelako kanpamendua eraikitzea harrigarria iruditu zitzaidan. Edozein material erabilgarria da beraientzat. Adibidez, bazkaldu genuen txabolan ate bat horizontalean jarri zuten, paretaren funtzioa egiteko asmoz, eta egia esan, oso ondo geratzen zen. Horretaz aparte, aita generadoreen bitartez argia nola lortzen zuten erakutsi zigun. Oso ondo moldatzen dira familia aurrerateratzen.

Esperientzia errepikatuko al zenuke?

Bai noski. Oso aberatsa izan da niretzako. Beraien bizitzaz eta geureaz aritu ginen, eta oso lasai adierazten zuten bizitzaren ari ziren egoera.

Esperientzia honek eragina izan al du errumaniarrekin zenuen ikuspegiari?

Bai. Denok uste dugu hona etortzen diren errumaniar ijitoak beti gauza txarrak egitera datozela, dirua eskatzea eta gehienetan lapurtzera. Onartu behar da kasu batzuetan horrela izan dela, baina kasu guztiak ez dira berdinak. Konturatu gara denetik dagoela, bai kanpamendu barruan eta bai kanpoan, eta batzuk ez dutela horrela jokatu. Bazkarian, dirua irabazteko ea zer egiten zuten galdetu genien eta txatarra bildu eta saltzen irabazten zutela esan ziguten (8 € 100 kg-ren truke saltzen omen dute). Diru laguntzengatik ere galdetu genien. Eusko Jaurlaritzak ez die laguntzarik ematen.

Kontaktua hauen ondoren harremana izaten jarraitzen duzue?

Ez dugu berriz harremanik izan errumaniar familiarekin.

Hala ere, joan ginenean argazki asko atera genituen. Gabonak gainean dauzkagunez, berriz kanpamendura joateko asmoa dugu eta oroi-garri bezala elkarrekin atera genuen argazki bat oparituko diegu.

Nolatan hartu zenuten erabakia programa honetan parte hartzeko?

Nire amak (Astigarragako Udaletxeko Berdintasun Sailko zinegotzia) SOS Arrazakeriaren dei bat jaso zuen. Dei honetan BIZILAGUNAK planari buruzko informazioa luzatu zioten eta proiektu hori Astigarragan burutzeko proposamena. Amak jakinarazi zidan, eta bi aldiz pentsatu gabe baiezkoa eman nion, interesgarria egin zitzaidalako.

Zergatik iruditzen zaizu plan hauek behar direla?

Batetik, mahai baten inguruan gauzatuko den proiektu bat beti izango delako aberasgarria eta bestetik, herrialde ezberdinetako jendearekin biltzea ezinbestekoa iruditzen zaidalako. Azken finean, elkarbizitza bat lortzeko pausuak eman behar dira.

Jada egon zarete errumaniarren etxean bazkaltzen, eta beraiek zuen etxean ere bai. Beste ekintzarik egiteko asmorik ba al duzue?

Bai noski. Bazkaltzen ari ginela berririo ere kanpamendura joateko gonbitea egin ziguten, ongi etorriak izango ginela. Lehen esan bezala, argazkia oparitzea joango gara gabonetan.

EGILEAK

AINHOA ARIAS, SARA GONZALEZ, IMANOL LABURU.

BETIDANIK JOLASEAN



Kaniketan jolasean.

Hernaniko helduek beren haurtzaroa ilusioz gogoratzen dute

GURE aitona-amonak haurrak zirenean ume guztiak bezala jolas egiten zuten. Nahiz eta teknologia berriek (Play Station, Nintendo DS...) jolasteko ohiturak aldatu dituzten, gure aitona-amonen jolas batzuk denboran irauten dute oraindik. Guzti hau aztertzeke Hernaniko kaleetara atera ginen bertako aitona-amonari galdetzeko haurrak zirenean nola eta zertara jolastzen ziren.

Neskak eta mutilak jolas desberdinetan ibiltzea ez da oraingo gauza bakarrik; kontatu zigutenez, beraiek ere ala egiten zuten. Emakumeen artean batez ere nagusitzen diren jokoak dira: tabak edo tortoloxak, goma, sokasaltoa eta ezkutaketa. Gizonezkoen artean, aldiz, futbola, pelota, harropaketa eta ezpatak, besteen artean. Hala ere, salbuespen batzuk bazeuden, hala nola emakumeak futboleko ibiltzea, mutilen bat tabetara edo guztiak elkarrekin, adibidez, *guardias y ladrones* edo *kaniak*. Joku berdina izen ezberdinekin topatu dugu, hau da *Txorro-morro-piko-tallo-ke*-ren kasua da. Hau euskarazko izena da, gaztelaraz *Churro-media-manga-manga-entera* edo *Cazuela-cazuelita-tijerita*.

Aipatu zituzten jokoan artean, badaude atentzioa deitu ziguten batzuk. Harritu egin gintuen hauek joko moduan hartzeak, ez baitira oso ohikoak gure artean. Hauen

arteak daude: borrokak, egur bila joatea, lapurretak...

Gizarte moderno honetan, tamalez, lehen jolastzen ziren joko asko galdu egin dira, honen adibide argia tabak edo tortoloxak dira. Guk ez genuen haien berri, eta galdeketa egiterakoan azaldu ziguten zertan oinarritzen zen. Tabak, euskaraz *tortoloxak*, arkumeen hantetako hezur txikiak dira eta joko ere hoiekin egiten da. Hernaniko gizon batek aipatu zigun moduan mahai gainean zortzi taba jartzen dira sakabanaturik, ondoren, pilota bat airera jaurtitzen da eta pilota mahai gainera erori baino lehen taba bat hartu behar da, eta horrela guztiak hartu arte. Hernaniko jolasteko modua horrela zen; hala ere, joko horrek beste aldaera asko ditu.

Aipatu nahi dugu gure kaleetan egin genuen galdeketa oso interesgarria iruditu zigula lehen jolasteko zeuden ohiturak ikusteko. Azpimarratzekoa da hernaniarrekin erantzuna ematean ze ilusioekin kontatzen zizkiguten beraien txikitako joko maitagarrienak. Azkenik eskerrak eman nahi genizkioke galdeketa lagundu ziguten guztiei.

EGILEAK

ANE INFANTE, GARBIÑE INTXAUSTI, IRAIDE PEJENAUETE, MIRIAM ARANBURU, JONNE ARANBURU, MAIDER ACOSTA, OIHANA GUTIERREZ ETA SHEILA CARVAJAL

51

zenbakia

ikasleen txokoa

Etiopiako haur alfabetatu gabe batzuk Motorola xoom-a jakeatu dute

2. eskuko azokak geroz eta indar gehiago!

«UN laptop Por un Niño (OLPC)» izeneko proiektu batek duela urte bat herri azpigaratuetako haurrei tablet batzuk eman zizkieten hauek beraien kabuz erabiltzen ikasteko helburuarekin. Idea hau 1999an Indian egin zen esperimentu batean oinarritzen da. Bertan ordenagailu batzuk paretetan jarri zituzten inongo instrukziorik gabe, eta ume hauek erabiltzen ikasi zuten.

Orain ideia berdina etiopian burutu da kasu honetan tabletekin. Bi herrirka ezberdinetan utzi zituzten, kaxetan sarturik, inongo etiketa eta instrukziorik gabe.

«Haurrek kaxekin jolastuko zutela pentsatu nuen. Lau minutu barru ume batek kaxa irekitzeaz gain, hau pizteko botoia aurkitu eta erabiltzen hasi zen», esan zuen Nicholas Negropontek, proiektu honen fundatzaileak.

«Bost egunetan haur bakoitzak batez beste 47 aplikazio erabiltzen zituzten eguneko. Bi astetan abezedarioarekin abestiak abesten zituzten



Irudimenak eta jakin-minak sekulako garrantzia omen dute ikasteko prozesuan.

beraien aldean eta 5 hilabete-tan android jakeatu zuten».

Motorola Xoom-ek software berezi bat zuten (Nell izenekoa), eta debeku bat zuten jarria kamera erabiltzeko eta mahai-gaineko konfigurazioetara sartzeko, baina ume hauen gaitasunari esker, bertan sartzea eta aldaketak egitea lortu zuten.

«Umeek erabat pertsonali-

zatu zuten norberaren eskritorioa; horrela, haur bakoitzarena desberdina zen. Softwarea, hau saihesteko instalatu genuen, baina traba hau gainditzeko modua aurkitu zuten, irudimena, jakinmina, eta aurkikuntzak erabiliz. Garbi geratu da ikaskuntzarako ezinbesteko ezaugarriak direla».

Emaitzek erakutsi dute,

ume etiopiar hauek tabletei esker dexente ikastea lortu zutela.

Mundu osoko hezkuntzarako estrategia berri bat izan al daiteke hau?

EGILEAK

JUDITH PEREZ, AINHOA LARREA,
EÑAUT ARANBARRI, IDOIA OLAZABAL,
ARANTXA OLAZABAL

Ikasleen Txokoa 51 zk. - HERNANI BHI:

ANIMAZIO SOZIOKULTURALA ETA TURISTIKOA



HERNANIN eta Usurbilen 2. eskuko jostailuen azoka ospatu zen abenduaren 15ean.

Abenduaren 15ean, jostailu erabilien azokaren seigarren edizioa ospatuko zen Usurbilen. Ekimen hau Hitz Aho guraso elkarteak antolatu zuen. Ekimen honen asmoa zen erabilpen berri bat ematea etxeetan erabiltzen edo behar ez diren jostailu, ipuin, liburu, dvd eta antzekoei. Gainera, trukea sustatzeko aukera paregabea eskaini zuen azoka egunera hurbildu ziren orok etetik ekarritako jostailuak trukatu ahal izan baitzituen Hitz Aho elkarteak jarritakoekin.

Usurbilez gain, Hernanin ere ospatu zen geroz eta jende gehiagok parte hartzen duen azoka hau.

Azken larunbatean ospatzen den 2. eskuko azoka, abenduaren 15ean ospatu zen Hernanin. Aurtengo azokak berrikuntza bat ekarri zuten, Berrera2li elkarte hain zuen. Orain arte postuak jartzeko ezartzen ziren jarrabideak berdinak izan ziren baina, oraingo honetan Udaletxean izena eman beharrean, Berrerabilpen zentroan eman behar zen.

Berrerabilpen zentroak jendeak ematen dituen gauzak hartu, txukundu, eta salgai jartzen ditu: arropa, altzari, musika instrumentu, jostailu...

Jendeak askotan, ez du jakiten nora eraman etxeko gauzak, behin erabili, eta gehiago behar ez dituen. Askok zakarretan bukatzen dute, eta pena da, aprobetxatzeko moduan egoten dira-eta. Hori da zentro honek ekidin nahi duena, horretarako bitartekari lana egiten du, bota behar duenaren eta eroslearen artean.

Honez gain, beste gauza batzuk ere eskaintzen ditu zentroak, beste hiri batzuetan egiten direnak, esaterako: trukeak egiteko txokoak, gauzak konpontzeko tokiak, lan poltsa bat eta baita denbora banku bat ere. Geroz eta erabiliago den zerbitzu bat. ■